

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Argi dago enpresa batek arrakasta izan dezan ezinbestekoa dela kanpoko enpresekin eta erakundeekin elkarlanean aritzea. Gure manta termiko eta pisudunaren proiektua insomnioari aurre egiteko sortu dugu, eta horretarako beharrezkoa da baliabideak modu eraginkorrean lortzea. Atal honetan, zehaztuko dugu zein erakunde eta enpresarekin harremanetan jarriko garen eta zertarako izango den aliantza hauen helburua.

Gure jarduera Urretxun kokatutako bulego eta biltegi batetik egingo dugu, UGGASA enpresari esker eskuratuko duguna. Ez dugu fisikoki saltokirik izango; gure produktua soilik online bidez salduko baitugu. Horrek azpiegiturari dagokionez kostuak murrizten lagunduko digu, eta gure arreta guztia plataforma digitalean jarriko dugu, mundu osoko bezeroei erantzuteko.

Gure produktua kalitate gorenekoa izan dadin, materialak hornitzeko fidagarriak eta espezializatuak diren enpresekin lan egingo dugu. Esate baterako, pisudun mantak egiteko materiala hornituko diguten fabrikatzaileak hautatuko ditugu, eta horretarako Decathlonekin harremanetan jarri gara. Honek pisudun materialak eta kalitate handiko ehunak hornituko dizkigu, gure produktuak insomnioari aurre egiteko benetan eraginkorrak izan daitezen.

Gainera, altzari eta biltegirako ekipamendua IKEA enpresan erosiko dugu. Altzarien erabilera erraztasuna eta prezio lehiakorrak direla eta, gure biltegirako behar guztiak asetuko dituzte. Biltegi ondo antolatua edukitzea ezinbestekoa da gure lineako eskaeren kudeaketa azkarra eta eraginkorra bermatzeko.



Gure produktua soilik online salduko denez, webgune sendo bat izatea gure estrategiaren oinarria izango da. Webgunearen sorrera eta hostinga ICANN enpresaren bidez egingo dugu, eta bertan gure manta termiko eta pisudunaren ezaugarri guztiak azalduko dira: diseinu ergonomikoa, material termikoen eraginkortasuna eta pisuaren eragin positiboa insomnioa arintzeko.

Webguneak bezeroei erosketa-prozesu sinple eta azkarra eskainiko die, eta laguntza-zerbitzu eraginkorra izango du zalantzak argitzeko. Bezeroek gure webgunearen bidez zuzenean erosi ahal izango dute produktua, eta eskaerak biltegitik zuzenean bidaliko ditugu, logistika azkar eta fidagarria bermatuz.

Lineako salmentaren arrakasta bermatzeko, enpresa pribatuekin elkarlanean arituko gara gure proiektua bultzatzeko. Enpresa hauek gure ideia garrantzia ulertu eta

diru-laguntzak eskainiko dituzte. Hasteko, Irizar, La Caixa eta Fundacion MRW bezalako enprekin harremanetan jarriko gara.

Enpresa pribatuekin egindako aliantza hauen bidez, marketin-kanpainak indartu ahal izango ditugu, hala nola, gure manta termiko eta pisuduna merkatuan ezagutarazteko promozio bereziak egin.

Gure helburua insomnioari aurre egiteko eraginkorra den produktua eskaintzea da, bezeroen erosotasuna eta ongizatea oinarri hartuta. Lineako salmenta-ekosistema indartsu bat sortzea eta hornitzaileekin lankidetza sendoa izatea gure proiektuaren arrakasta bermatzeko funtsezko elementuak izango dira. Urretxutik lan eginez eta online plataformetan gure indarra jarritz, gure produktua eraginkortasunez eskaini ahal izango dugu.